

Nola jaso hazia

NOLA JASO ETA IRAUNARAZI behar da hazia? Makina bat aldiz entzundako galdera. Hazia bildu ondorengo lanek lanak ematen dizkigute.

Udazkenean sartuta eta sasoi berriaren udaberria begi-bistatik urrun, hazien aroa da. Haziari sasoiari, landare berri bat emateko indarrean nola eutsi da kakoa. Naturalena, landareak fruituaren barruan hazia heldutasunera eramanean duenean, orduantxe bertan ereitea litzateke. Naturan etengabe gertatzen dena horixe da. Fruitua heldu, usteldu eta hazia lurrari emanez haziari lurra eman.

Gure paisaia natural izatetik urrun dagoenez, hau da, dena kulturala denez, geuk ereiten eta behar dena egiten dugulako, haziaren bide natural hori eten egiten dugu.

Etete horrek gorabeherak sortuko ditu hazian. Hasieran haziari bere horretan kieto eutsi nahiko diogu, mugitu gabe, ernatu gabe. Urte batzuetan eutsi beharra ere, litekeena. Horretarako, haziaren garapena geldituko duten baldintzak baliatu beharko ditugu.



LA INDIANA

Haziak ernatu eta bereari eutsi eta landarea sortzeko, zer behar du? Argia, temperatura epela eta ura. Bada, gure lana horiek kentzea da.

Hezetasuna ahal den neurrian kendu egin behar diogu. Ondo lehortu. Ontzi edo poltsatxo batean sartu eta hezetasunaren beldur bagara, sutauts edo klarion hauts artean jaso. Hauts horrek bereganatuko du ur arrastorik txikiena ere.

Temperaturak ere badu zeresanik. Hotzetan eutsi behar zaio

haziari. Haziak pentsatu behar du neguan dagoela, ez dela ernatzeko sasoi. Hortik hotza eman beharra.

Argirik ikustea ez zaio komeni. Ilunpea ere neguarekin lotzen du, eta amu horri heltzea komeni zaigu.

Ernatzeko garaian, hori dena irauli behar da, negutik udaberrira igaro dela sentitu behar du haziak: hotzetik epelera, ilunpetik argitara eta lehorretik bustira. Hori da kakoa: negua sentitu eta gero udaberria aditu eta igarri. ■

3 edo 4

Laster da hemen azarora, hazi aroa, hazila. Azarora beti lotu izan dut marrubiekin (*Fragaria vesca*). Marrubi landarea eskasa da. Urte gutxian pattaltzen da, eta gero eta fruitu gutxiago ematen du.

Marrubiak badu, ordea, ugaltzeko joera xelebre bat: herrestadarrak luzatzen ditu zurtoinarenekin. Lur gainean luzatzen dira, mehe-mehe, eta sustraiak eman eta itsatsi, landaretxo berriak sortuz.

Landare gazte sasoi horiek azaroan aldatzen dira. Horretarako, lur berria jartzea komeni da: oparo emango du, eta amak zituen gaitzak uxatuko dira.

Lurrean edo ontziren batean, berdin da: poto, lata, lorontzi...

Hiru edo lau urtetik behin erabat berri behar marrubitegia... ■



JAKOBA ERREKONDO